El negocio fue fundado en 1956 por el matrimonio formado por María Ángeles Miranda y Agustín Gracia, 'Parrita'. La familia ya tenía raíces en este lugar, puesto que el padre de Ángeles, Tomás Miranda, había sido sobrestante del Plazaola y vivido con sus diez hijos en la estación situada a unos metros de donde se levantaría el bar. Cuando el Plazaola dejó de funcionar, el matrimonio adquirió el solar gracias a un premio de lotería y levantó un edificio de dos plantas: la baja alojaba el bar y la sala donde Parrita continuó con su oficio de peluquero y en la primera planta vivía la familia.

El nuevo negocio tuvo desde los inicios una gran acogida entre la población de la Cendea de Ansoáin y gentes de valles más al Norte que se detenían en Aizoáin camino de Pamplona. Con el tiempo, se sumaron los trabajadores de los nuevos polígonos industriales y el local se amplió. Lo que habían sido las vías del Plazaola se convirtieron en los 70 en el nuevo comedor. Al negocio se fueron incorporando los hijos de la pareja -Luis, María Ángeles y Mikel- y se contó también con personal externo. "Se trabajaba de lunes a las siete de la mañana a domingo a las diez de la noche, sin fiestas, puentes ni vacaciones, con solo una tarde de descanso semanal; no se daban más comidas porque no se podía", explica Mikel.

En el Deportivo la clientela encontraba un trato familiar y buena cocina. Primero María Ángeles y después su hija bordaban platos tradicionales como el ajoarriero, la gallina con arroz, los menudos, las magras, las manitas o el cordero al chilindrón. "En fiestas de Aizoáin se jugaba al ilustrado, se preparaba relleno casero y se servían cenas de angulas y almuerzos de tortilla de angulas con las que habrían sobrado –recuerda Mikel–. También hacíamos matatxerri y se colgaba el cerdo en las escaleras; después vendíamos la birika".

El Deportivo ha sido escenario de tertulias, animadas partidas de mus, risas, encendidos debates políticos y acaloradas discusiones futbolísticas. De hecho, durante años fue sede del Club de Fútbol Alegría, integrado por jugadores de la Cendea, que celebraba sus reuniones en el local.

El local ha sido frecuentado por futbolistas, periodistas, políticos, pelotaris y otras celebridades, pero sobre todo por una clientela fiel que visitaba a diario el Deportivo. "Aquí encontrabas a los personajes ilustres de la Cendea. Hay quien se detenía en el Deportivo camino de Pamplona y nunca llegaba porque se entretenía. En los tiempos en los que se uti-



> Hay quien se detenía en el Deportivo camino de Pamplona y nunca llegaba porque se entretenía

> Batzuk, Iruñera bidean, Deportivon gelditu, eta ez ziren sekulan hara iristen, hemen entretenitzen baitziren

> "Desde que lo anunciamos el cierre hemos recibido muchas muestras de cariño"

> Itxiera iragarri genuenetik, bezero eta jende askoren hitz maitekorrak jaso ditugu

lizaban las caballerías, había alguna yegua que ya se paraba sola en la puerta –ríe Mikel–; después fueron los conductores de La Montañesa los que entraban a tomar algo o incluso a echar alguna partida al mus. También hemos vivido aquí huelgas de transportistas, de tractores o de fábricas del entorno".

En los últimos años los tres hermanos redujeron el ritmo de trabajo para tener más tiempo libre hasta que el pasado 31 de diciembre echaron la persiana por circunstancia familiares. "Desde que lo anunciamos hemos recibido muchas muestras de cariño de clientes y personas que, después de tantos años, ya consideramos amigas. Estamos muy agradecidos y orgullosos porque significa que algo habremos hecho bien. Y tampoco queremos olvidarnos de todas las personas que han trabajado junto a nosotros, en especial de Pili Sangalo, Manoli Somovilla, Lorenzo Vals, Mikel Médel y Antonio López". Ahora los tres hermanos esperan disfrutar del tiempo libre y de un merecido descanso.

Negozioa 1956an abiarazi zuten María Ángeles Miranda eta Agustín Gracia, 'Parrita', senar-emazteek. Familia bertan errotua zegoen, Ángelesen aita, Tomás Miranda, Plazaola treneko langileburua izan baitzen, eta bere hamar seme-alabarekin batera bizi izan zen herriko geltokian, taberna eraikiko zen lekutik metro gutxira. Plazaolak funtzionatzeari utzi zionean, loteria suertatu, senar-emazteek orube bat erosi eta bi solairuko etxe bat eraiki zuten: behekoan, taberna ezarri zuten, bai eta Parritak bere ile-apaintzaile lanari segida emateko gela ere. Lehenbizikoan, berriz, familia bizi izan zen.

Hasieratik bertatik, Antsoain Zendeako bizilagunek arras ongi hartu zuten negozio berria, bai eta Iruñera bidean Aitzoainen gelditzen ziren iparralderagoko ibarretako jendeek ere. Denborarekin, industrialde berrietako langileen topalekua ere izan zenez, taberna handitu zen. Horrela, Plazaolako trenbideak izandakoetan jantoki berria egin zen 70eko hamarkadan. Senar-emazteen seme-alabak ere hasi ziren negozioan lanean (Luis, María Ángeles eta Mikel), eta kanpoko langileak ere kontratatu zituzten. "Egunero lan egiten zen, astelehen goizeko zazpietatik igande gaueko hamarrak arte, jairik gabe, ez zubirik, ez oporrik, astean arratsalde bakar bat hartuta atsedenaldirako; ez zen otordu gehiago ematen, ezin zelako", azaldu digu Mikelek.

Deportivon, bezeroek tratu hurbil-hurbila jasotzen zuten, bai eta janari goxo-goxoa ere. Lehenik, María Ángelesek, eta gero, alabak, ezin hobeki prestatzen baitzituzten plater tradizionalak, hala nola ajoarrieroa, oiloa arrozarekin, arkume barrukiak, txerri-hankak, xingarrak edo bildoskia txilindronean. "Aitzoaingo festetan, ilustradoan jokatu, etxeko tripotx zuria prestatu, eta angulak zerbitzatzen ziren afarietan; eta biharamunean, sobran zeudenekin, angula tortillak –ekarri du gogora Mikelek–. Matatxerria ere egiten genuen eta txerria eskaileratik zintzilikatzen genuen; gero, birika saltzen genuen".

Deportivon jendea gustura biltzen zen solasean aritzeko, musean jokatzeko; batzuetan, irri-algaran; bestetan, eztabaida politiko sutsuetan eta futbol kontuen gaineko ika-miketan. Izan ere, urte sail luzean, Alegría Futbol Klubaren egoitza izan zen. Zendeako jokalariek osatua, taldeak tabernan bertan egiten zituen bilerak.

Tabernan ugari ibili dira futbolariak, kazetariak, politikariak, pilotariak eta jende ospetsua, baina batez ere egunero Deportivora joaten ziren bezero fidelak: "Hemen Zendeako jende xelebrea aurkitzen zenuen. Batzuk, Iruñera bidean, Deportivon gelditu, eta ez ziren sekulan iristen, hementxe entretenitzen baitziren. Zamariak erabiltzen ziren garaian, bazen atean bera bakarrik gelditzen zen behorren bat –irri egiten du Mikelek–; gero, La Montañesako gidariak sartzen ziren zerbait hartzeko edota, are, baita mus partiduren bat jokatzeko ere. Hemen ere garraiolarien eta traktoreen grebak bizi izan ditugu, bai eta inguruko lantegietakoak ere".

Azken urteotan, hiru anaia-arrebek lan erritmoa moteldu dute denbora libre handiagoa izateko, harik eta joan den abenduaren 3an tabernako atea itxi zuten arte, familia inguruabarrek eraginda. "Itxiera iragarri genuenetik, bezero eta jende askoren hitz maitekorrak jaso ditugu; hainbeste urteren ondotik, adiskidetzat jotzen ditugu. Oso eskertuak gaude eta harro-harro, zerbait ongi egin omen dugula esan nahi duelako. Eta era berean ez ditugu ahaztu nahi gurekin lanean aritu diren pertsona guztiak; bereziki, Pili Sangalo, Manoli Somovilla, Lorenzo Vals, Mikel Médel eta Antonio López". Orain, hiru anaia-arrebek denbora librea gozatzea espero dute, bai eta ongi merezitako atsedena ere.

# ATENCIÓN CIUDADANA
# HERRITARRENDAKO ARRETA

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA / DÍA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES




## Antzerkia, tailerrak eta defentsa pertsonaleko ikastaroa Martxoaren 8aren inguruan

## Teatro, talleres y curso de defensa personal en torno al 8 de marzo

Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, Udalak hainbat ekitaldi antolatu zituen. Lehenbizikoa, "Pantxika alter ego" proposamen dibertigarria izan zen, Zirika Zircus taldeak martxoaren 7an María de Maeztu Kultur Etxean emana, hots, generoen arteko berdintasunari buruzko antzerki-ikuskizun bat. Biharamunean, martxoaren 8an, hiru ekitaldi eskaini ziren goizean: emakumeen defentsa pertsonalerako eta autobabeserako ikastaro bat, María Domínguez Gizarte Etxean; eta globoflexia tailer bat eta aerografo bidezko tattoo tailer bat Artikaberriko plaza Nagusian. Era berean, plaza horretan bertan, kale bilkura egin zen eguerdiko 12:00etan.







Con motivo del Día Internacional de las Mujer, el Ayuntamiento organizó diversos actos, que arrancaron con la divertida propuesta de la compañía Zirika Zircus, "Pantxika alter ego", un espectáculo teatral sobre la lucha por la igualdad entre géneros que se representó en la Casa de Cultura María de Maeztu el 7 de marzo. Al día siguiente, el 8 de marzo, se ofertaron tres actividades por la mañana: un curso de defensa personal femenina y autoprotección, que se impartió en el Centro cívico María Domínguez; y un taller de globoflexia y un taller de tattoos con aerógrafo, que se desarrollaron en la plaza Central de Nuevo Artica. Asimismo, en esta misma plaza tuvo lugar una concentración a las 12:00.

CONCILIACIÓN / KONTZILIAZIOA

## Campamentos urbanos infantiles de Semana Santa

### Las preinscripciones serán los días 26, 27 y 28 de marzo

Este año las preinscripciones de los campamentos urbanos infantiles de Semana Santa, que tendrán lugar del 22 al 25 abril, se realizarán la última semana de marzo. Las personas interesadas deberán llamar los días 26, 27 y 28 de marzo al teléfono 012 Infolocal 948 012 012. El listado de admitidos y admitidas se publicará el 1 de abril y los pagos deberán realizarse el 2 y 3 de abril.
Hay que recordar que los campamentos urbanos infantiles están destinados a menores que en el momento de realizar la inscripción estén escolarizados entre 2º de Educación Infantil y 6º de Educación Primaria, es decir, para escolares nacidos entre los años 2013 y 2020 (ambos inclusive).
Más información en la web municipal **www.berrioplano.es** y en las redes sociales municipales.

## Aste Santuko hiri kanpaldiak haurrentzat

### Aurreinskripzioak martxoaren 26tik 28ra izanen dira

Aurten, Aste Santuko haurrendako hiri kanpaldiak apirilaren 22tik 25era eginen dira, eta aurreinskripzioak, martxoaren azken astean. Izan ere, interesdunek martxoaren 26tik 28ra bitarteko epea izanen dute aurreinskripzioa egiteko, 012 infolokal telefonora deituz (948 012 012). Onartuen zerrenda apirilaren 1ean argitaratu eta ordainketa apirilaren 2an eta 3an egin beharko da.
Oroitarazi behar da norentzat diren hiri kanpaldiak, hots, izena ematean haur hezkuntzako 2. mailatik lehen hezkuntzako 6.era bitarte eskolatuak dauden haurrentzat, hau da, 2013tik 2020ra bitarte jaiotako eskolaumeentzat (biak barne).
Argibideak **www.berrioplano.es** udal webean eta udalaren sare sozialetan.

ESCUELA DE MÚSICA ORREAGA / ORREAGA MUSIKA ESKOLA

## Viaje a Comarruga en abril

La escuela de música municipal Orreaga viajará a Comarruga del 4 al 6 de abril para ofrecer varias actuaciones en la escuela de música Pau Casals de El Vendrell. En total, 92 personas, integrantes de la banda de mayores, del grupo de guitarras, del grupo de acordeones y trikitixas "Hauspo rock" y de un combo, se desplazarán hasta la Costa Dorada.
El viernes 4 de abril ofrecerán un concierto a las 19:00 en la escuela de música Pau Casals de El Vendrell y participarán y colaborarán con el alumnado catalán en diferentes actuaciones.
Pero además de las obligaciones musicales programadas , también habrá tiempo para el ocio. El sábado disfrutarán de las atracciones de Port Aventura Park y el domingo, y siempre que el tiempo lo permita, irán a la playa.
La imagen bajo estas líneas es de una salida similar de la Escuela realizada en junio de 2024 a Torroella de Montgrí (Girona).

## Comarrugara joanen da apirilean

Orreaga udal musika eskola Comarrugara joanen da apirilaren 4tik 6ra, El Vendrelleko Pau Casals musika eskolan hainbat emanaldi emateko. Guztira, 92 lagun joanen dira Costa Dauradara, hots, handien bandako kideak, gitarra taldekoak, "Hauspo rock" akordeoi eta trikitixa taldekoak, eta combo bateko kideak ere bai.
Apirilaren 4an, ostiralarekin, 19:00etan, El Vendrelleko Pau Casals musika eskolan kontzertua emateaz gain, ikasle katalanekin batera joko dute hainbat saiotan.
Baina musika-emanaldiak eskaintzeaz gain, aisiarako astia ere izanen dute. Larunbatean, adibidez, Port Aventura Parkera joanen dira eta, igandean, berriz, hondartzara, eguraldiak laguntzen badu.
Lerropeko irudian, antzeko ateraldian ageri dira Eskolako kideak, 2024ko ekainean, Torroella de Montgrí herrian (Girona).



### En marcha la txaranga de la escuela

La escuela de música está inmersa en un nuevo proyecto: la creación de una txaranga. En los últimos meses se han realizado varios ensayos y sus, hasta el momento, 20 integrantes afrontan con mucha ilusión el nuevo reto que se han marcado para esta primavera. En el próximo número de la revista os daremos más detalles de la charanga y de sus salidas.
Consulta el programa de conciertos y audiciones de la escuela en la Casa de Cultura María de Maeztu en la página 2 de esta revista. El miércoles 11 de junio será el concierto de fin de curso (17:30 y 19:00).

### Eskolako txaranga, abian

Musika Eskolak asmo berri bat darabil esku artean: txaranga bat sortzea, hain zuzen ere. Azken asteotan, hainbat entsegu egin dira, eta orain arte, 20 lagun ari dira poz-pozik dena prestatzen udaberri honetan hasteko. Aldizkariaren hurrengo alean txarangari buruzko xehetasunak emanen dizkizuegu, bai eta non arituko diren ere.
Kontsultatu eskolak María de Maeztu Kultur Etxean eginen dituen kontzertu eta entzunaldien egitaraua, aldizkari honetako 2. orrialdean. Ekainaren 11n ikasturte bukaerako kontzertua emanen dute (17:30 eta 19:00).

GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA / MANCOMUNIDAD DE SERVICIOS SOCIALES

## Mendekotasun eta autonomia programaren 2024ko balantzea

Aurreko alean aurreratu genuen bezalaxe, administrazioek Berriobeitiko herritarren eskura jartzen dituzten gizarte zerbitzuak Antsoain, Berriozar, Berriobeiti, Txulapain eta Itzako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen bitartez ematen dira.
Eskaintzen den programetako bat mendekotasuna eta autonomiarena da, mendekotasunean dauden pertsonen autonomia baloratu, bultzatu eta laguntzeko. 2024an, 6 pertsona artatu zituzten Berriobeitin. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua, berriz, 5 etxetan eman zen.

## Balance 2024 del Programa de dependencia y autonomía

Como ya adelantamos en el número anterior, en Berrioplano los servicios sociales que las administraciones ponen a disposición de la ciudadanía se prestan a través de la Mancomunidad de Servicios Sociales de Ansoáin, Berriozar, Berrioplano, Juslapeña e Iza.
Uno de los programas que se ofertan es el de Dependencia y Autonomía. Se trata de un recurso que permite valorar, apoyar y fomentar la autonomía de las personas en situación de dependencia. En 2024 en Berrioplano se atendieron a 6 usuarios y se prestó el Servicio de Ayuda a Domicilio a 5 domicilios.

# KULTURA
# CULTURA

### ERAKUSKETAK / EXPOCICIONES

## Olio-pintura eta Memoriaren Nafarroako Institutuaren erakusketa bat




## Pintura al óleo y una exposición del Instituto Navarro de la Memoria

Udaberrian, bi proposamen ezberdin eskainiko dizkigu Artikako María de Maeztu Kultur Etxeak, zein baino zein interesgarriagoa. Horrela, oraindik ere **Ana Etxenike**ren olio-margolanak ikusi ez dituztenek martxoaren 31ra arte izanen dute lanak gozatzeko parada bertako erakusketa gelan. Ardatz harturik bai natura bai izadiko koloreak, pintoreak pintzelak erabiltzeaz gain, hainbat material ere baliatzen ditu bere lanetarako, hala nola kartoia, kraft papera, zatar-papera edo mache-papera. Emaitza arras lan orijinalak dira. Maiatzean, **Memoriaren Nafarroako Institutuak** hartuko du txanda "Hormigoizko mugak" erakusketaren bidez. Erakusketak, zehazki, bidaia bat egitea proposatuko digu Horma Atlantikoan eta Pirinioetako Gotorlekuetan barrena. Biak ere izugarrizko defentsa-azpiegiturak dira, II. Mundu Gerraren testuinguruan eraikiak. Bada, erakusketak baliatuko ditu Pirinioetan eta Bizkaiko golkoan zehar eraikitako gotorleku eta egitura militar ugariak, begirada haien egileengan pausatzeko, hots, ehunka mila langile behartu baitzituzten horrelako azpiegiturak eraikitzera; gehienak, nazismoaren eta frankismoaren errepresaliatu politikoak, miseria eta bortxa baldintza eta giro ikaragarrietan aritu behar izan zutenak. Erakusketa maiatzaren 6tik 30era egonen da ikusgai.





Esta primavera la sala de exposiciones de la Casa de Cultura María de Maeztu (Artica) nos ofrece dos propuestas muy diferentes, pero igualmente interesantes. Quienes todavía no hayan visitado la exposición de pintura al óleo de **Ana Etxenike** tienen tiempo hasta el próximo 31 de marzo. La pintora, que se inspira en la belleza de la naturaleza y sus colores, no solo se sirve de los pinceles sino que juega también con materiales, como el cartón, papel kraft, papel de estraza o papel maché. El resultado, una muestra muy original. En mayo, el **Instituto Navarro de la Memoria** toma el testigo con la exposición "Fronteras de hormigón", una muestra que nos propone un viaje por el Muro Atlántico y la Fortificación del Pirineo, dos impresionantes infraestructuras defensivas construidas en el contexto de la II Guerra Mundial. La exposición se sirve de las numerosas fortificaciones y estructuras militares que se levantaron en el Pirineo y a lo largo del golfo de Bizkaia para poner en primera línea a sus auténticos protagonistas, centenares de miles de trabajadores, en su mayoría represaliados políticos del nazismo y el franquismo, sometidos a terribles condiciones de miseria y violencia. La muestra estará abierta al público del 6 al 30 de mayo.

### URTEKO LEHIAKETA / CERTAMEN ANUAL

## 2025eko argazki lehiaketaren irabazleak

Berriobeitiko Udalak argazki lehiaketaren irudi irabazleak aukeratu ditu. Honatx hamar argazki aukeratuak eta egileak: "Campos blancos de agosto", David Guardia González; "Elurra", Óscar Payán Vélaz; "Portal del Plazaola", Leslie Kelly Lévano Zavala; "Isiltasuna", Jon Ciganda Murillo; "Ezkidiko jabeak", Diego García Ruiz; "El abrazo de la niebla", Iñigo Kepa Zamorano Nieto; "Ur basati", Josune García Lasheras; "Ilunabarra", Ane Ciganda García; "Hotza da kanpoan", Edurne García Lasheras; eta "Egunsentia", Héctor Lerena Cuenca.

Irudiak udalaren hedabideetan egonen dira laster eskura.

## Fallado el Concurso de Fotografía 2025

El Ayuntamiento de Berrioplano ha seleccionado las imágenes ganadoras del Concurso de Fotografía. Las diez fotos elegidas han sido "Campos blancos de agosto", de David Guardia González; "Elurra", de Óscar Payán Vélaz; "Portal del Plazaola", de Leslie Kelly Lévano Zavala; "Isiltasuna", de Jon Ciganda Murillo; "Ezkidiko jabeak", de Diego García Ruiz; " El abrazo de la niebla", de Iñigo Kepa Zamorano Nieto; "Ur basati", de Josune García Lasheras; "Ilunabarra", de Ane Ciganda García; "Hotza da kanpoan", de Edurne García Lasheras; y "Egunsentia", de Héctor Lerena Cuenca. Las imágenes estarán disponibles próximamente en las canales de difusión municipales.

TEATRO INFANTIL EN EUSKERA / HAUR ANTZERKIA EUSKARAZ

# Espectáculo de luz negra para toda la familia

## "Sesamo ireki zaitez", de Caleidoscopio Teatro, se podrá ver el domingo 13 de abril a las 18:00 en la Casa de Cultura (Artica)

"Sesamo ireki zaitez" (Caleidoscopio Teatro) es un espectáculo de luz negra para público familiar (a partir de 3 años) que utiliza técnicas variadas: máscaras, manipulación de objetos, títeres, muñecos y esculturas hinchables que conforman una escenografía tridimensional. El montaje presenta el libro como objeto mágico e inesperado. Un niño inmerso en una gran aventura comprueba cómo el libro, "un regalo fastidioso", se convierte en un gran tesoro, una caja de sorpresas. Entradas en la web municipal www.berrioplano.es (venta de entradas).



# Argi beltzeko ikuskizuna etxeko guztientzat

## Caleidoscopio Teatro taldeak "Sesamo ireki zaitez" lana taularatuko du apirilaren 13an, igandea, 18:00etan, Artikako Kultur Etxean

Argi beltzeko ikuskizuna da familientzako (3 urtetik aurrera) eta era askotako teknikak erabiltzen ditu: maskarak, objektuen manipulazioa, txotxongiloak, panpinak, bai eta hiru dimentsioko eszenografia osatzen duten eskultura puzgarriak ere. Antzezpenean, gauza liluragarria eta ustekabekoa izanen da liburua. Izan ere, sekulako abentura bizitzen ari den mutikoak ikusiko du nola bihurtzen den "opari gogaikarri" hori (liburua) altxor eta sorpresa-kutxa. Sarrerak www.berrioplano.es udal webean (sarrera salmenta).

DÍA DE LA COMPARSA / KONPARTSAREN EGUNA



## Fiesta de los gigantes y cabezudos de Artica en mayo

El **31 de mayo**, la Comparsa de Gigantes y Cabezudos de Artica celebrará el Día de la Comparsa. La jornada comenzará con la Gigantada, que recorrerá las calles, y después de la comida, una sobremesa con música, un monólogo e hinchables infantiles. Por la tarde, está prevista una sesión de baile con orquesta y DJ y para concluir la jornada, toro de fuego.

## Artikako erraldoi eta buruhandien jaia maiatzean

**Maiatzaren 31n**, Artikako Erraldoi eta Buruhandien Konpartsak Konpartsaren Eguna ospatuko du. Eguna hasteko, erraldoi bilkura handi bat eginen da kalez kale eta, bazkalondoan, musika, bakarrizketa saio bat eta haurrendako puzgarriak. Arratsaldean, berriz, dantzaldia eginen da plaza-talde eta DJ baten eskutik eta, egunari akabera emateko, zezensuzkoa.

ERRETIRATUENDAKO TXANGOA / EXCURSIÓN PARA PERSONAS JUBILADAS

## Jaka eta San Juan de la Peñako monasterioa bisitatuko dituzte

Kultura alorrak antolaturik, erretiratuek txangoa eginen dute heldu den ekainaren 14an. Zehazki, Aragoiko leku adierazgarrienetako batzuk ikustera joanen dira. Izan ere, goizez, Puente la Reinan gelditu, hamaiketakoa egin, eta ondoren, San Juan de la Peñako monasteriora joanen dira (monasterio zaharra eta monasterio berria edo interpretazio zentroa), bai eta Santa Cruz de la Serósko elizara ere. Bisitaldiaren ondotik, Jakara joan, bertan bazkaldu eta, arratsaldean, herriko alde zaharrean barna ibiliko dira. Izena maiatzean eman beharko da, **012 Infolokal telefonora deituz (948 012 012)**. Datak ohiko informazio kanalen bitartez baieztatuko dira (udal weba eta sare sozialak).



## Visita a Jaca y al monasterio de San Juan de la Peña

El área de Cultura ha organizado para el próximo **14 de junio** la excursión para personas jubiladas. La salida tendrá como destino algunos de los lugares más emblemáticos de Aragón. Por la mañana, el grupo hará un alto en el camino para almorzar en Puente la Reina de Jaca antes de dirigirse al Monasterio de San Juan de la Peña (Monasterio viejo y Monasterio Nuevo-Centro de Interpretación) y a la iglesia de Santa Cruz de la Serós. Tras la visita, se trasladarán a Jaca para comer y, por la tarde, recorrerán su casco antiguo.

Las inscripciones se realizarán en el mes de mayo a través del teléfono **012 Infolocal (948 012 012)**. Las fechas se confirmarán a través de los canales de información habituales (web municipal y redes sociales).

# KULTURA
# CULTURA

## FIESTA COMUNITARIA / FIESTA COMUNITARI





## Berriobeitik handizki ospatu ditu inauteriak

Beste behin ere, Berriobeitin besta giro ederrean ospatu dira inauteriak, Zendeako herriek ere parte harturik. Horrela, martxoaren 15ean, larunbatarekin, herrietako koadrilak Berriobeitin elkartu ziren, jendeak gogotik, sormen handiz eta umorez parte hartuta. Eguerdiko 12:30ean, inaute-pregoia eman zen udaletxean. Ondotik, musikariak eta erraldoiak karrikaz karrika ibili, eta taldeak nahiz bisitariak pilotalekuan biltzen hasi ziren. Han, herri bazkari handia egin zen, giro eder eta koloretsuan. Arratsaldean, herri bakoitzeko jendearen emanaldiak egin ziren eta, dantzaldia, Luzianoren eskutik. Eguna ere erritmo bizian bukatu zen, FRN DJren musikarekin.

## Berrioplano celebró el Carnaval por todo lo alto

Un año más, Berrioplano celebró a lo grande la fiesta del Carnaval con participación de los pueblos de la Cendea. El sábado 15 de marzo el pueblo de Berrioplano recibió a las cuadrillas del resto de pueblos en una jornada muy participativa en la que reinó la creatividad y el buen humor. La jornada arrancó con el pregón carnavalero a las 12:30 en el Ayuntamiento. La música y los gigantes recorrieron las calles mientras los grupos y visitantes iban llegando al frontón. Las personas asistentes disfrutaron de la tradicional comida popular, muy animada y colorista. El plato fuerte llegó por la tarde, con las actuaciones de los pueblos y la verbena con Luziano. El día finalizó a muy buen ritmo con la música del DJ FRN.

## BIBLIOTECA PÚBLICA DE BERRIOPLANO / BERRIOBEITIKO LIBURUTEGI PUBLIKOA

## Idoia Sobrino, nueva bibliotecaria

Idoia Sobrino es desde enero la nueva titular de la Biblioteca Pública de Berrioplano (Casa de Cultura María de Maeztu, Artica). Actualmente se encuentra inmersa en la preparación de diversas actividades e iniciativas culturales que se desarrollarán en los próximos meses.



### Día del libro

Con motivo del Día del Libro (23 de abril), la Biblioteca ha organizado un **taller de fanzine el martes 15 de abril**, de 17:00 a 19:00. Está dirigido a jóvenes y mayores y será bilingüe. El taller “Esto no es un libro: taller de fanzine” será impartido por Iñigo Satrustegi. Es gratuito, pero es necesario inscribirse (hasta el 11 de abril en el teléfono 948 38 26 22).

Hay que recordar que, además de los servicios que se ofrecen en la propia biblioteca (préstamo de libros y de audiovisuales; revistas y prensa diaria; internet y asesoramiento, actividades culturales...), también existe un servicio de biblioteca a domicilio para personas residentes en los pueblos de Berrioplano que dispongan de carné de persona usuaria de las Bibliotecas Públicas de Navarra y movilidad reducida acreditada (solicitudes: bibliarc@navarra.es y 948 38 26 22, de 14:00 a 20:00).

## Idoia Sobrino, liburuzain berria

Urtarrilaz geroztik, Idoia Sobrino da Berriobeitiko Liburutegi Publikoko liburuzain berria, Artikako María de Maeztu Kultur Etxean. Gaur egun, buru-belarri ari da hainbat jarduera eta kultur ekimen prestatzen, datozen hilabeteotan garatzeko.

### Liburuaren Eguna

Liburuaren Eguna dela eta (apirilak 23), Liburutegiak fanzine tailer bat antolatu du apirilaren 15erako (asteartea), 17:00etatik 19:00etara. Gazte eta helduendako izanen da, ele bitakoa. “Hau ez da liburu bat: fanzine tailerra” izenburuko tailerra Iñigo Satrustegik emanen du. Doakoa da baina izena eman beharko da (apirilaren 11ra arte 948 38 26 22 telefonoan).

Gogoratu beharra dago, liburutegian bertan eskaintzen diren zerbitzuez gain (liburu eta ikus-entzunezko maileguak; aldizkariak eta eguneroko prentsa; internet eta aholkularitza, kultur jarduerak...), etxez etxeko liburutegi zerbitzu bat ere badagoela zendeako herrietan bizi den jendearendako, baldin eta Nafarroako Liburutegi Publikoetako erabiltzaileen txartela badute, bai eta mugikortasun murriztu ziurtatua ere (eskaerak: bibliarc@navarra.es eta 948 38 26 22, 14:00-20:00).

# KIROLA
# DEPORTE

PROMOCIÓN DE LA ACTIVIDAD FÍSICA / JARDUERA FISIKOAREN SUSTAPENA

## El Día del deporte se celebrará el 17 de mayo

## Kirolaren Eguna maiatzaren 17an izanen da

La cita con el deporte llegará el próximo sábado 17 de mayo con una programación que tendrá dos escenarios: la plaza central de Nuevo Artica, donde se desarrollarán las actividades de la mañana, y el frontón de Berrioplano, que acogerá por la tarde las exhibiciones infantiles.





Kirola ardatz izanen da heldu den maiatzaren 17an (larunbata) eta ekitaldiak bi tokitan eginen dira: goizekoak Artikaberriko plaza Nagusian eta arratsaldekoak, berriz, hau da, haurren kirol erakustaldiak, Berriobeitiko pilotalekuan.

### 17 de mayo, plaza central de Nuevo Artica

10:00-11:00
MASTER CLASS CIRCUITO FUNCIONAL

11:00-12:00
MASTER CLASS DE ZUMBA

11:00-13:00
TIRO CON ARCO
Detrás de la Escuela Infantil

11:30-14:00
HINCHABLES DEPORTIVOS

12:00-12:30
CLASE JUMPING ADULTOS

12:30-13:00
CLASE JUMPING INFANTIL

16:30-19:00
HINCHABLES DEPORTIVOS

### Maiatzak 17, Artikaberriko plaza Nagusia

10:00-11:00
ZIRKUITU FUNTZIONALA MASTER CLASS

11:00-12:00
ZUMBA MASTER CLASS

11:00-13:00
ARKU-TIROA
Haur Eskolaren atzean

11:30-14:00
KIROL PUZGARRIAK

12:00-12:30
JUMPING KLASEA HELDUENTZAT

12:30-13:00
JUMPING KLASEA HAURRENTZAT

16:30-19:00
KIROL PUZGARRIAK

### 17 de mayo, frontón de Berrioplano

17:00-20:30
EXHIBICIONES INFANTILES
**Lugar:** frontón de Berrioplano. Exhibición de los grupos de danzas urbanas, pelota a mano, natación sincronizada, gimnasia rítmica, judo, txiki zumba, takwondo, kick boxing y ballet.



### Maiatzak 17, Berriobeitiko pilotalekua

17:00-20:30
HAURREN KIROL ERAKUSTALDIAK
**Lekua:** talde hauen erakustaldia: hiri-dantzak, eskupilota, igeriketa sinkronizatua, gimnasia erritmikoa, judoa, txiki zumba, takwondoa, kick boxinga eta balleta.

## Igeriketa ikastaro trinkoak udaldian

## Cursos intensivos de natación de cara al verano

Heldu den ekainaren 9an, udaldiko igeriketa ikastaro trinkoak hasiko dira haurrentzat eta helduentzat Berriobeitiko kirol instalazioetan eta Artikako Kirol Hirian. Hastapen, hobekuntza eta entrenamendu ikastaroak eskainiko dira, guztiak ere bi astekoak. Hasiera batean, bi txanda aurreikusi dira Berriobeitiko igerilekuetan (ekain eta uztailean) eta bost txanda, berriz, Artikakoetan (ekainetik abuztura bitarte). Ikastaro-eskaintza, dena den, herritarren beharren arabera aldatzen ahalko da. Data zehatzak laster iragarriko dira. Izena emateko epea maiatzaren bigarren hamabostaldian irekiko da. Jaso informazioa ohiko hedabideetan (udal webgunea eta sare sozialak).

El próximo 9 de junio darán comienzo los cursos intensivos de natación de verano (infantiles y de adultos) en las instalaciones deportivas de Berrioplano y en la Ciudad Deportiva de Artica. Se ofertarán cursos de iniciación, perfeccionamiento y de entrenamiento de dos semanas de duración. En principio, están previstas dos tandas en las piscinas de Berrioplano (en junio y julio) y cinco tandas en las de Artica (desde junio hasta agosto), aunque la oferta de cursos podrá variar en función de las necesidades de la población. Las fechas exactas se anunciarán próximamente. Las inscripciones se abrirán la segunda quincena de mayo. Infórmate en los canales de difusión habituales (web municipal y redes sociales).

# BERRIOBEITIKO BIDEAK
# CAMINOS DE BERRIOPLANO






**IRTEERA / SALIDA:** Saratsa (herriaren sarreratik hurbil dagoen ohar-panela) / Sarasa (panel indicativo cercano a la entrada del pueblo)
**HELMUGA / LLEGADA:** Iruñea (Biurdana parkearen bukaera, hilerriko bidearekiko gurutzearen ondoan) / Pamplona (final del parque Biurdana, junto al cruce con el camino del cementerio)
**LUZERA / DISTANCIA:** 9,65 km
**GEHIENEKO GARAIERA / ALTITUD MÁXIMA:** 523 m
**GUTXIENEKO GARAIERA / ALTITUD MÍNIMA:** 428 m
**DESNIBEL POSITIBOA / DESNIVEL POSITIVO:** 114 m
**DESNIBEL NEGATIBOA / DESNIVEL NEGATIVO:** 31 m
**ZAILTASUNA / DIFICULTAD:** erraza / fácil

## Saratsa-Iruñea Plazaolako bide berdea

Plazaolako Bide Berdeak Berriobeitiko udalerria gurutzatzen du, Iruñea eta Donostia 1905etik 1953ra lotu zituen trenbide zaharraren ibilbidea baliatuta. Gaur egun, trenbide zahar hura moldatua dago eta Bide Berdea edo Natur Bidea da. Gure udalerrian 9,65 kilometroko luzera du eta hainbat leku zeharkatzen ditu, hala nola Añezkarko gaina, Oteitzako San Joan Bataiatzailearen eliza, Berriogoitiko Plazaola trenaren monumentua eta Aitzoaingo Plazaola industrialdea. Azken leku horretatik aitzina egiten du Berriozarren eta Artikaberrin barna, nafar hiriburuan sartu arte.
la bide tarte guztia bat dator trenbide zaharraren trazatuarekin, Añezkarko gaineko eta Berriogoitiko tunelak izan ezik, haien ordez hormigoizko zola egin baita.
Ibilbidean badira hiru atseden gune (Oteitzako San Joan Bataiatzailearen baseliza, Berriogoitiko Plazaola parkea eta Berriozarko eremu moldatu bat, bidearen eta trenbidearen artean), bai eta bizikletak aparkatzeko euskarriak ere. Trazatuan badira 17 jarleku, 2 piknik mahai eta 120 seinale.

## Vía verde del Plazaola Sarasa-Pamplona

La Vía verde del Plazaola a su paso por el municipio de Berrioplano discurre en el antiguo trazado del ferrocarril que unió Pamplona y San Sebastián entre 1905 y 1953, en la actualidad acondicionado como Camino Natural-Vía Verde. Cuenta con 9,65 kilómetros que recorren parte del municipio (alto de Añézcar, iglesia San Juan Bautista de Oteiza, Monumento al tren Plazaola de Berriosuso, polígono Plazaola de Aizoáin), atraviesan Berriozar y enlazan con la capital navarra desde Nuevo Artica.
Prácticamente todo el nuevo tramo coincide con el antiguo trazado de ferrocarril, a excepción de los túneles del alto de Añézcar y de Berriosuso, que han sido sustituidos por un pavimento de hormigón.
El recorrido dispone de tres áreas de descanso (ermita San Juan Bautista de Oteiza, parque Plazaola de Berriosuso y una zona acondicionada en Berriozar, entre el camino y las vías del tren) con aparca bicis. El trazado dispone de 17 bancos, 2 mesas de picnic y 120 señales.

# TOPONIMIA DE BERRIOPLANO
# BERRIOBEITIKO TOPONIMIA

## Baratzeaga

En esta ocasión nos referimos a un paraje denominado "Baratzeaga", en el que había *uertas* junto a regata (1879). Está situado al sur de Añézcar, junto a la muga de Larragueta, a los lados de la Regata Grande, que recoge aguas del monte y de la fuente del pueblo, pasa por el Soto de Loza y desagua en la Balsa de este lugar.
Estos terrenos, que antiguamente estaban salpicados por las huertas de los vecinos y vecinas de las localidades de Añézcar y Larragueta, son actualmente campos en los que se cultiva cereal.

**FUENTE:** "Nombres de lugares de la antigua Cendea de Ansoáin" (José María Jimeno Jurío)

**FORMA** (documentación contemporánea, posterior a 1870): *Barachaba* (1879), *Barachaga* (1945)

**PRONUNCIACIÓN POPULAR:** *baratxaga*

**ITURRIA:** "Nombres de lugares de la antigua Cendea de Ansoáin" (José María Jimeno Jurío)

**FORMA** (dokumentazio garaikidea, 1870 ondokoa): *Barachaba* (1879), *Barachaga* (1945)

**JENDEAREN AHOSKERA:** *baratxaga*



Oraingo honetan, "Baratzeaga" deritzon ingurua ekarriko dugu lerrootara. 1879ko agiri baten arabera, bertan baziren baratzeak erreka bazterrean. Añezkar hegoaldean dago, Larragetako mugaren ondoan, orain gaztelaniaz *regata grande* deritzon parajearen ondoan. Erreka horrek mendiko eta herriko iturriko urak bildu, Lotzako zaldua zeharkatu eta herri horretako aintziran isurtzen ditu urak.
Lehenago, lur horietan, Añezkarko eta Larragetako bizilagunen baratzeak zeuden eta, gaur egun, garia eta garagarra lantzeko alorrak dira.

# FLORA DE LA CENDEA
# ZENDEAKO LANDAREAK

## Orrea

*Juniperus communis*

**Otros nombres:** enebro (cast), orrea (eusk)

Arbusto o arbolito de aspecto denso y ramificado. Muy variable en su porte, de entre 1 y 3 metros de altura, aunque puede ser rastrero o alcanzar más de 10 metros. Corteza gris, que se desprende en finas tiras. Hojas de 1 a 2 cm. con forma de aguja, rígidas y punzantes. Son aplanadas y presentan una banda blanca longitudinal. Perennes. Florecen en la primavera temprana. Sus flores, poco vistosas, se agrupan en conos. Cada ejemplar sólo produce flores masculinas o femeninas. Su fruto (gálbulo) parece una baya, de color azulado oscuro en la madurez; proceso que dura 2-3 años, con lo que pueden verse las flores y los frutos en distintos momentos del proceso.

**Distribución:** casi todo el hemisferio norte: Europa, Asia y Norteamérica.
**Hábitat:** muy variado, desde el nivel del mar hasta más de 2.000 m. En nuestro entorno es muy común y lo encontramos desde laderas despejadas hasta el borde y los claros de los bosques.
**Comportamiento:** crece en casi cualquier terreno, pero prefiere vivir al sol y en suelos drenados. Soporta bien el frío y la sequedad. A su sombra se cobijan muchas especies de árboles que, mientras son pequeños, no podrían crecer a pleno sol; con lo que es un matorral muy importante en la regeneración del bosque.
**Usos:** se han usado sus frutos y sus ramas en medicina popular en problemas digestivos, urinarios y como diurético. Sus bayas se usan para aromatizar carnes y ciertos licores, como la ginebra.
**Dónde encontrarlo:** en Berrioplano podemos verlo en todos los montes que sobresalen a los campos de cultivo.

**Texto y fotografía:** Sociedad de Ciencias Naturales Gorosti)

## Orrea

*Juniperus communis*

**Beste izen batzuk:** enebro (gazt), orrea (eusk)



Zuhaixka edo zuhaitz txiki trinko eta adarkatua da. Eitea askotarikoa da, 1 - 3 metro artekoa, eta herrestaria edo 10 metrotik gorakoa izan daiteke. Azalez grisa, zerrenda meheetan erortzen dena. Hostoak 1-2 cm-koak, orratz-formakoak, zurrunak eta zorrotzak. Lautuak dira eta zerrenda zuria dute luzetara. Hostoiraunkorrak. Udaberri goiztiarrean loratzen dira. Loreak ez dira ikusgarriak eta konoetan biltzen dira. Ale bakoitzak lore maskulinoak edo femeninoak baizik ez ditu sortzen. Fruituak (galbulua) baia bat dirudi, urdinxka iluna helduaroan; prozesuak 2-3 urte dirau; ondorioz, loreak eta fruituak prozesuaren hainbat unetan ikus daitezke.

**Banaketa:** ia ipar hemisferio guztia: Europa, Asia eta Ipar Amerika.
**Habitata:** askotarikoa, itsas mailatik 2.000 m-tik gorako lurraldeetaraino. Gure inguruan oso arrunta da eta mendi-magal soilduetan, oihan ertzetan eta baso soilguneetan hazten da.
**Portaera:** ia edozein lurretan hazten da, baina eguzkitan bizitzea maite du, bai eta lurzoru drainatuetan ere. Ongi aurre egiten dio hotzari eta idortasunari. Zuhaitz espezie aunitz gerizpetzen dira haren itzalean, txikiak direnean eguzki betean hazi ezin izanen luketenak; beraz, oso sasi garrantzitsua da basoa birsortzeko.
**Erabilerak:** fruituak eta adarrak herri medikuntzan erabili dira, bai digestio eta gernu arazoetan, bai diuretiko gisa. Baiak, bestalde, haragiak eta likore batzuk urrintzeko erabiltzen dira, hala nola ginebra.
**Non topatuko dugu:** alorren gainetik dauden Berriobeitiko mendi guztietan.

**Testua eta argazkia:** Gorosti Natur Zientzi Elkartea

# GURE TOKI PUBLIKOAK
# NUESTROS ESPACIOS PÚBLICOS

## María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)

2007an inauguratu zen eta Artikan dago, herrian. Oin berriko eraikina da eta 244 lagunendako ekitaldi aretoa du, arte eszenikoetako udal programazioa emateko (antzerkia, dantza, kontzertuak); halaber, kultur eta kirol ekitaldiak; Orreaga Musika Eskolako kontzertuak eta entzunaldiak, etab.

**ERAIKINA:** areto eszeniko bat da. Baditu lan-galeriak eszenako teknikarientzat, eszenako makineria eta argi zein soinu tresneria. 244 jarleku ditu. Halaber, bada erakusketa gela, erabilera anitzeko bost gela, bulegoak, biltegiak, bi kamerino, banatzaileak, bi bilera gela, liburutegia eta taberna-kafetegia.
**KULTUR ETXEAREN AZALERA:** 1.874,84 $m^2$
**LIBURUTEGIAREN AZALERA:** 446,18 $m^2$
**HELBIDEA:** Iturriko bidea, 1. 31013 Artika
**TEL:** 948 38 32 54
**POSTA ELEKTRONIKOA:** cultura@berrioplano.es

Casa de Cultura
MARIADEMAEZTU
Kultur Etxea



## Casa de Cultura María de Maeztu (Artica)

Fue inaugurada en 2007 y está ubicada en Artica pueblo. Es un edificio de nueva planta con un salón de actos con 244 plazas que acoge la programación municipal de artes escénicas (teatro, danza, conciertos); actos culturales y deportivos; los conciertos y audiciones de la Escuela de Música Municipal Orreaga, etc.

**EDIFICIO:** salón escénico dotado de galerías de trabajo para técnicos de escena, maquinaria escénica y equipos de iluminación y sonido con aforo de 244 butacas, sala de exposiciones, cinco salas polivalentes, oficinas, almacenes, dos camerinos, distribuidores, dos salas de reuniones, biblioteca y bar cafetería.
**SUPERFICIE CASA DE CULTURA:** 1.874,84 $m^2$
**SUPERFICIE BIBLIOTECA:** 446,18 $m^2$
**DIRECCIÓN:** Camino de la Fuente, 1. 31013 Artica
**TFNO:** 948 38 32 54
**CORREO ELECTRÓNICO:** cultura@berrioplano.es











# CARNAVAL / INAUTERIAK










